

HONDARRIBIA


D. L. S. S. 122/86 Inp. R. Fernández J. Arana 27. 1986

15. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1987 Uztaila



ESTEBAN OLAIZOLA ELIZAZU, Hondarribian bakarrik ez ezik, Euskal Herriko itsasbater osoan ere oso ezaguna den gure herriko arrantzalea da gaur **GURE PERTSONAIA**.

Urtarrileko alean beste arrantzaletan bat ekarri genuen gure orrietara, **Jose Migel Elduayen**, Kofradiako Abata Nagusia zenez. Orain, San Pedro eguna ezkerre, Abata Nagusia berria dugu: Esteban Olaizola, eta herrian arrantzaren munduak duen garrantziak ohariturik, berarengana joan gara, arazo nagusiak ezagutu eta aztertzeraz...

Kai Berriaren haunditzeko asmoek, berriaz, gatazka sortu dute herrian, alde eta aurkako jarrerak agertuz. Baina hau ez da arazo bakarra, eta guztiei ematen diegu erreparosoa Estebanekin egin dugun elkarriketaren, eta laugarren orrialdean irakur ahal izango duzu.

Hurrengo alea Hondarribiko jaiak eskainia izango da, ale berezi eta marulagoa. Iharzkoaren antzera egina, hantxe argitaratuko ditugu jaietako programa. Alardeko agintarien zerrenda, kantineren argazkiak, Hondarribiari buruzko artikulua, olerki, bertso, etabar. Aldizkariaren 16garren zenbakia izango da, eta piskana piskana sendotuz eta indartuz joango gara herriko euskara pizkortzeko sortu genuen **"HONDARRIBIA"**.

HONDARRIBIAREN BESTE ALDEA

Nor nahi joaten bazara, Hondarribikoa zarela jakiten dutenean, berehala lorez beteko dute zure herri hau:

"Hondarribikoa zara? Ai, ze herri eder-
rra!, ze polita den! Gipuzkoako politene-
takoa da Hondarribia! Guri asko gustatzen
zaigu eta askotan joaten gara Hondarribi-
ra..."

Oso zabaldua dago Euskal Herri guz-
tian gure herria ikusgarria dela, zabela,
atsedengarria... Hondartza haundia, pase-
leku lasaiak, bide luzeak, lorebaratz, arbo-
ladi, Jaizkibel, Bidasoa, San Pedro kalea,
Kai Zaharra, aireportu, Alde Zaharra, Gi-
puzkoa Enparantza, Gaztelua, Eliza Nagu-
sigotikoa, harresiak, Alardea, musikabanda,
arrantzako ontziak, sareak...

Asko eta asko azaleko aurpegi edo alde-
arekin bakarrik geratzen dira, eta hauen
inpresioa ezin hobea da, noski. San Pedro
kalea betetzen duten bisitari gehienentzat
axal axaleko aurpegi horretan bukatzen da
herri honen ikuspegia, eta hondartza da-
torrena ere ez da hasiko herriko problemak
aztertzen.

Kanpotik begiraturik, Hondarribia herri eus-
kalduna da, hau da, Hondarribian euske-
ra da nagusi. Herriaren sarrean jarririk
daude kartel haundiak:

"Gu euskaldunak gara", "Guk euska-
raz, zuk zergatik ez?", etabar....

Gainera, arrantzaletan herria da, eta ba-
dirudipikotasun batekin edo, arrantzaletan herrietan euskaraz egin behar
dela hitz. Mutriku, Getaria, Orrio, Doniba-
ne, eta Hondarribia sartuko lirakeke kate-
goria edo sail horretan. Hala, kanpotik da-
torren asko, lehendabizi, euskaraz hasten
da hizketan, hartara beharturik balego
bezala.

Herriaren izena bera **Fuenterrabiatic-
HONDARRIBIA**-ra aldatu zen. Kale-izenak
ere euskara hutsen jarri ziren. Eta orain-
txe bertan errepide eta inguruetarako kar-
telak ere euskaraz bakarrik jarri dira. Hau
loredia!!!

Baina hurbiletik begiratzen duenak,
ikuspegi tristeagoa jasoko du. Erdara na-
gusitu egin dela esango genuke gure her-
rian. Zaharrek, helduek, eta haurrek ezik,
ia inork ez duela egiten euskaraz.

Non gaude **Eusko Alkartasunari** 1.956
boto eman genionak? Non gaude **Herri Ba-
tasunari** 1.952 boto eman genionak? Non
gaude **Euskadiko Ezkerrari** 648 boto eman
genionak? Non gaude **Eusko Alderdi Jelt-
zaileari** 606 boto eman genionak? Non
gaude abertzaleok? Non euskaldunok?



Non dira Hondarribiko eta Jaizubiko lkastoletan ibili ziren gazteak? Non dira Biteri eta Ama Guadalupeko euskarazko eskoletan dabilen haurrak?

Non dira Gipuzkoa, eta Nafarroa, eta beste probintziatirik Hondarribia etorri diren eta datozen euskaldunak?

Elizak ere erdaraz 18 meza ematen dituzte astebetean, euskaraz 10 ematen dituzten artean.

Euskaldunon egoera eta euskarazaleen bizitza zergatik izan behar dute hain zapatuak?

Zergatik ez dugu euskaraz bakarrik egiten, euskaraz dakigun guztiok? Zergatik zapaltzen gaituzte goitik eta behetik, etxekoek eta konkotoek? Zergatik utzi behar ditugu alde batera gure izena eta hizana?

Hondarribia, herri polita, baina herri euskarazkoa zen. Hemen euskaraz egiten zen, nahiz eta erdarak ere bere indar txoa edukiko. Baina euskara gorde egin zuten gure aurrekoek, eta euskara eman zuten gure lehendabiziko hizkuntza bezala. Hondarribiko euskaraz bazuen, gainera, halako dotoretasun berezia, eta bere doinu eta azentu bereziarekin erakutsi zituzten gurasoak.

Gure bildurra, ordea, hauxe da: euskaraz jakin eta euskaraz egiten ez badugu, guk galduko dugula euskara.

Aldizkari honen bidez egiten dizuegu, beraz, deia euskaldun guztioi: zure espaietan EUSKARA izan dadila lehendabizikoa eta betikoal!

OHARRAK

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN

Arratsaldeko 7,30tan: Portuan

IGANDEETAN

Goizeko 8,30etan: Betharramen
Goizeko 9etan: Amuten
Goizeko 9,30tan: Guadalupe
Goizeko 11etan: Portuan

TXANDAKO OKINDEGIAK

Uztailak 31: Martinez
Abuztuak 2: Garmendia
9: Arratibel
15: Martinez
16: Garmendia
23: Arratibel
30: Martinez

ELKARTUKO AL GARA?

Nik uste dut garen baina fama gehiago jarri digutela nekazariel, alegia gu ez garela erraz elkartzen garen jendea. Zerbait esaten dute baserritarrek oso egoskorra garela eta bakartiak. Geure baserria, geure soroak, geure basoak, geure bideak, eta geure bideak, eta geure hazienda bakarrik maitatzen ditugula. Besterenak ez ditugula oso gogoko.

Baina nik ez dut hori pentsatzen. Baserritarrek beste edozein bezalakoak gara. Egia da guk baditugula motiboak bakarka aritzeko, beste askok baino gehiago.

Fabrika batean lana egiten duenak ezin du bakarka egin lan, han den denak elkartu beharrean aurkitzen direlako. Adibidez, makina bat montatzen ari badira, batek hau jartzen du, besteak hura, beste batek hemen soldeatzen du, beste batek han; halakoak halako tuerka estutzen du, besteak berriz beste hura...

Barkuan dabilenak ere berdin aritzen dira. Sarea ez du batek bakarrik botako, denon artean baizik. Berdin, sarea alatean, guztiak egin behar dute batera, batek handik, besteak hemendik...

Fabriketako eta itsasoko langileek eguneroko ogia halaxe irabazten dute, batek bestearen beharra dutelarik, eta ohiu egiten dira elkar-lanean.

Gure lana ez da halakoa. Normalean ere gehienetan bakarrik aritzen gara so-

roan, edo egurretan, edo ikulluan, edo beldian... Gure hazienda ere ez dira haundiak, eta auzokoen laguntza beharrik ez dugu somatzen gehienetan.

Hala ere, gero eta gehiago somatzen dugu elkartu beharra. Gaur ez da lehen bezala. Bakarka ez dago indarrik, ez auzoan, ez Udaletxean, ez Gobernuaren aurrean, ez Merkatu Komunean, inon ez. Nekazariak gero eta larritasun haundiak ditugu, bai ganadu, bai esne, bai pentsu, bai kontribuzio, eta beste mila kontuetan. Gure bizitza nahiko gogorra izanik, orain etorkizuna ere nahiko beltza datorkigu, Europatik datorren kompetentzia oso latza izango delako.

Gure baserritxoen zatikaltetarako besterik ez da izan Merkatu Komunaren sartzea, eta geure interesak defenditu beharrean aurkitzen gara. Ez pentsa inor etorriko zaigunik laguntzera, geu ez bagara elkartak.

Hauxe da, beraz, Hondarribiko nekazari guztientzat zabalitzen den deia: **elkartu gaituzen! elkartasunetik egingo dugu eta indarra**. Bakarka ibiltzearekin, ahuldu egingo gara, eta jan egingo gaituzte guk baino indar handiago dutenek. Baina denok biltzen bagara, orduan gure indarra ere haundia izango da, eta geure burua eta baserririk defendituko ditugu.

Ximon



Bidegurutze

TXANDAKO BOTIKAK

Uztailak 31: Erasquin
Abuztuak 1- 2: Mayi
3- 9: Iraola
10-16: Erasquin
17-23: Mayi
24-31: Iraola

EUSKARAZKO IRRATIAK

- Euskadi Irratia, Donostia 94,5 FM
- Gure Irratia, Baiona 89,6 FM
- Irulegi Irratia, Irulegi 93,2 FM
- Xiberoko Botza, Maule 94 FM
- Arrate Irratia, Eibar 101,50 FM

Herriko kale eta inguru guztiak garbitzeko, Udalak **Construcciones y Contratas S.A.** enpresari eman dio enkargua. Bada gure herriak garbiketa on baten beharra.

Lehen ere aldezkarri honen bidez jakinean jarri zaituztegu, Gipuzkoako Foru Aldundi edo Diputazioak dirulaguntzak ematen dituela etxeko fatxadak konpondu edo txukuntzeko. Metro karratuko 130/150 pta. ematen duen, eta laguntza hauek jasotzeko nahi duenak, Abuztuaren 30 aurretik sartu beharko du eskea herriko Udaletxean.

Soroetako jaia alaitasun eta giro onez ospatu ziren, urteoro bezala, jende askok parte hartuz. Gaueko zezenak izan ziren, batez ere, njiarik bizigarrienak, baina beste jaialdi guztiak ere ongi joan ziren. Eguraldiak ez zuen lagundu gehiegi, baina umore onal dana konpondu zuen. Pilota partidu, futbito, sukaldaritza, ikastolado dantzariak, txistulari, buruand, pintura lehiaketak, kross, etabar... Auzo honek oso ongi prestatzen ditu jaia.

Herriko CARITAS-ek egindako dirueskean, langabezia dauden alde, 390.000 pta. bidu ziren.

Hondarrabiko jaia hurbiltzen ari direla, eta herriko soziedade edo elkarteak biltzen hasi ziren aspaldi. Lehendabiziko bilera San Juan egunez egin zuten, eta oraintxe azken txanpa aegin beharrean aurkitzen dira, programa inprentara eramateko egunak iritzi direlako. Abernola festa prestatu dizkiguten!

HERRI BERTAN kooperatibakoek ikusi dute halako batean euren proiektoa egin behar dela. Urte askoren ondoren, hor dade Puntalean etxeak eginik, eta inguruak, txukundurik. Piskanaka piskanaka ari dira etxeak betetzen, eta dagoeneko badira hogeiren bat familia bertan bizi direnak. Zoriorik ematen dizkiogu Kooperatiba garantzitsu honi, eta ea GURE HERRIAN izenekoak ere beste horrenbeste lortzen duen!

Kanposantua haunditzeko lanak ere berehala hasiko dira. Kanposantua txikia geratzen ari zen, herria haunditzen ari delako. Orain egingo den obrarekin, beste 50 urtetarako nahikoa izango dela pentsatzen da. 90 milioi gastatuko dira obra hauetan.

Herriko Udalak, ekaineko hauteskundeak eginda gero, eta zinegotzi berriak sartu aurretik, dirulaguntza hauek eman zituen etxetako obrak egin direlako. Emandako diruak, honela banatu ziren:

Ignacio Ganborenari, milloi bat pta., Kale Nagusiko 6 zenb., etxea konpontzearen; **Dolores Eturari**, beste milloi bat, Mendeluko Ugarte-etxea konpontzearen; **M. Isabel Zabalari**, 250.000 pta.; **Emilia Zuzurregi**, 12.273; **Sebastian Arance**, 50.000; **Victor Lekuona**, 13.318; **Fermin Izaguirre**, 50.000; **Iñaki Lazkano**, 67.492; **Karmen Aginagaide**, 75.000; **Dolores Hernan**, 50.000; **Kale Nagusiko 11 zenbakikoei**, 200.000; **San Pedro kaleko 85 zenbakikoei**, 74.280; **Alfonso Escorial**, 122.499; **Bonifacio eta Santiago Parro**, 59.250; **Meltxor Subiza**, 150.000; **Gloria Elorrieta**, 100.000; **Longino Alvarez**, 50.000; **Goretti Ezeiza**, 75.000; **Olivia Gonzalez**, 50.000; **San Pedro kaleko 45 zenbakikoei**, 30.000; **Santiago Altuna**, 90.000; **Eugenio Ortiz**, 58.539 eta 63.063; **Teresa Garmendia**, 47.600; **Gregorio Salcedo**, 240.150; **Florenzio Amunarriz**, 69.041; **Rafael Artola**, 100.000; **Maria Gende**, 100.000; **Jose Ugartemendia**, 48.000.


Orain arte SATARKA izenez esagutu dugun Kasino Zaharra, Jubilatuentzat Egoitza bihurtuko da laister.

Etxe hau garai batean Kasinoa izan zen, oso famatua. Gero Logroñoko Aurrezki Kutxak erosi zuen Errioxako haurrentzat udalekua antolatzeko, eta horrela iraun zuen urte askotan, oraintxe zapiraren bat urte arte. Orduan utzi zuten etortzea Errioxako haurrek.

Hori ikusirik, Hondarrabiko Ikastolak jesiola egin zituen herriko haur txikiak ezin izan zuten eskolaurrea jartzeko toki horretan, horrela ikastolara sartu aurretik euskaraz hitz egiten ohiu zitezen haurtxoak, ez zekitenen erakutsiz.

Ikastolaren ideia onartu zuen Udaletxeak, eta erosi egin zuen Udalak Kasino Zaharra, eta Ikastolak SATARKA izena jarri zion. Hondarrabiko olerkaria Sagazau'tar Kauldi-ren izena ipiniz.

Orain, Puntaleko etxedi berrian ere badugu beste leku polit eta atsedena, taberna berria ireki bait da hantxe. Kanpoko terrazan eseri eta, Txingudiko haize freskoa hartuz, garagardotxo bat edatea, oso ona izango da noski.



Aurtengo udak ekarri duen bitxiakera bat, hondartzan jarri duten **tobogana** da. Nobedade honek haur asko animatu du goitiki behera iristatzera, eta badirudi harrera oso ona izan duela. Gurasoen kartera eta patrikerak sufrituko dute, baina haurrak ez dira larritzen gurasoen arazo horregatik.

Federiko Zugarramurdi sendagileak badu berriro ere eraso gogorra Insalud aldetik. Eta bidebatez, herria ere berarekin bat eginik dagoela ikusi dugu.

Zugarramurdi sendagilea oso maitatua da, bere jakituria eta baita bere izakergatik ere. Gizon jator eta gaisoentzako laguntzaile sutsua izanik, jendeak asko maitatu du, eta ez du Insalud-en erabakia onartu. Jendea gogor mugitu da Udaletxearen bidez sendagilea herrian gero dadin. Ikusi egin behar orain, arazoa nola bukatzen den.

Magdalena Karrikako festa oso buillangero eta jatorrak izaten badira urteoro, aurtengoak gehiago izan dira. Karrika hortako jendeak meritu izugarria dute, halako jaiak prestatzen dituztelako. Haur eta heldu, inor ez da geratzen herrian karrika horretara joan gabe **Santa Maria Magdalena** egunean.

Aitzol

ESTEBAN OLAIZOLA

San Pedro egunez **Done Pedro Arrantzaleen Kofradiako** Abata Nagusia hautatua, Santiago egunez harter berria du kar-gua Esteban Olaizolak.

"Beti Mesias" arrantza ontziko patroia, beste bost aldiz ere **Itsasoko Alkate** edo legatzketarien lehendakari hautatua izan da aurretik. Oraingo honetan, ordea, Joxe Migel Elduaen-en ondotik, Kofradia osoaren ardura jaso du.

Antoni Aginagarekin eskondua, bi seme eta alaba batek osatzen dute sendia. Portuarra, San Pedro kaleko 51an 1941ko martxoaren 31an jaioa dugu Esteban.

— Betidaniki ibili al zara itsasoon?, gal-
detzen diogu.

— Bai, arrantzalen semia, eta txiki txi-
kitatik hemen ur ikusian ibili gera, eta ge-
ro bizi guztian itsasuan, motor haundietan
serbiziua kunplitu arte. Gero, 1963an
aitak bafore bat hartu, MARI PAZ izena
zuen, eta ordu ezkerotzik barksu txiki-
tan. MARI PAZ izan zen azkena egindako
barkua hemengo Patxiluko ondoko astille-
ruan. Eta hortikan, gero anaiakin eta bes-
te lagunakin batian hartu genuen BETI ME-
SIAS eta hor patroiz segitzen dut orain
artian.

— Zein dira zure lankideak Kofradiako
Juntan?

— Pello Idiazabal, Alaba Ederren ibiltzen
den Lizarraga, Tife Larruskain, eta ni, bar-
ku txikitatikan. Haundien aldetik, Juan Al-
tuna, Joxe Migel Elduaen, Pedro Iñarra,
Horazio Cuervo. Hauek formatzen dugu
Direktiba.

— Nola ikusten duzue gaur Kai Berria-
ren arazoa?

— Arazo horren aurrian oso triste gau-
de. Orain dela hogei egun etorri zitzaigun
Jaurraltzako bizekonejerua, Ipiña, Psoc-
kua, eta izandun gendun billera bat Kofra-
dian, eta oso tristura haundiakin entzun
genion, orain arte Obras y Puertosek, gu-
re kaia egiteko bazuela presupuestua, es-
katzen gendun mutur hori egiteko, ipar-
raldeko mutur hori alegia. Baina orain zer
gertatu da? Ba Herriko Etxeak jarri dituen
oztopo eta traba guztiagatik, orain ez da
lartu dirunik presupuestuan gure Kaia
haziteko, eta mutur hori geiteko.
Arrantzaletan batentzat oso tristia da Herri-
ko Etxian akordioak izandun ez dalako mu-
tur hori ez dela egingo.

— Zergatik duzue mutur horren behar-
ra?

— Gaur kotxe bat dunak ere, garaje bat
nahi du edukitzea, eta barkua daukanak
ere, bere bizi guztian lanian ibilki eta hori

— Nik uste dut informazio problema
dela, jendia ez dagola behar bezela infor-
matua edo ez du nahi informatu. Guk es-
katzen genuen egitekoz iparraldeko mu-
tur hori neguan barrena ehun metro, bar-
kuak lasai egitekoz leku hortan, ez deza-
ten peligrorik izan itsaso txarrakin. Eta
orain klaru gelditu da Ayuntamientuak es-
katutako informan ez dela inholako ozto-
porik hori egitekoz eta, herri guztiak jakir
behar du mutur hori egitiak ez dakarrela
kalterik ez hondartzari eta ez ezerri. Hor
klaru dago Herriko Etxiak berak eskatu eta
Santanderreko injenieruak Losada: egin
duan informan, eta Herriko Etxiak berak
ere onartu egin duela informe hau.

— Herriko Etxeak hartu al du erabaki-
rik?

— Gu zai gaude Ayuntamientua for-
matzekoz oraindik ez da formatua hautes-
kudetatik hilabete t'erdia iragoto gero, eta
hori lortsagarria da Hondarribia beza-
lako herri batentzat, gauza asko direlako
egitekoz.

— Kofradiako buru zarenez, zer beste
problemarik ikusten duzu lartiana?

— Momentuan, problemarik haundie-
na atuna dugu, ezin dugula saldu. Ikusi-
ri fan den urtian 3 milioi kilo atun zirela
izotzuta Euskal Herri guztian, 310 peza-
tan gelditu genduelako benta, uste gen-
dualako prezio hori itxeki egin behar zela
arrantzaliak erosi behar ditun gauza guz-
tiak gora dijuazela ikusten genduelako, eta
arraia berriz behera zizuala. Zergatik beha-
ra? Momentuan behintzat Komunitate
Europakuan sartu geranetik ez digu
ezertan mesederik egin. Ikusten dudu in-
basio haundi bat dala, ez Komunitadeko
produktuak, baizik beste naziotatik, Suda-
frika, Mexiko... hortikan ere atun asko
ekartzen ari dira, eta orduan gure arraia
behera dijula. Gu hori ara prezio mi-
nimo batzuk jartzen, 220 pta. eskatzen
dugu fabrikarok, eta 230 pta. 9 kilotik
gorako atunentzatz.

— Juan den urtea ere prezio horietan
saldu zenuten?

— Fan den urtian 320 pezetan jarri
gendun prezio minimua, baina ikusten du-
gu atuna beheraka faki dela, Komunita-
dean sartu geran ezkerotzik kanpiera.
Problema horretaz gainera, instalazio be-
rriak behar ditugu, izotz fabrika, arranta-
leentzat etxe berriak Lurgorrikoen ondoan,
kontserberak...

• • •

Buruhauste haundi eta ardura latzak
beuren gain gizon hauek hartzen ditutze-
nak. Ilusio haundiz Estebanek ere bere biz-
karrera bota duen zama hau ere bete de-
zala, opa diogu, herrirako ona izango
delako.

Eskerrikasko ematen diogu, aldzikari-
rako esan duen guztiagatik.



— Zergatik erabaki du Kofradiak he-
mendik aurrera Abata Nagusia legorreen
geratzea?

— Ikusten delako lan asko dela gure
herrian kofradia barrenean, lehengo urtian
ere egun asko galduta ditudalako itsasuan,
Orduan Kofradiak ikusi du legorrian gelditu
beharra dela.

— Hainbeste lan dago Kofradian?

— Bai, orain ez da lehengo kontua be-
zela, lehen arraiak ekartzen zen eta laja eta
listo. Gaur berriz merkatuak eta billatu be-
har dira, egun asko kanpauan pasa ere bai;
Madrillen dela, edo Gasteizen dela, edo
Parisen edo Bruselaren, beti billeran ari
gera.

eduki, ehun da gehiago milloiko balio duen
barkua hori bakarrik izaki, eta leku bat es-
katzen zen hori zaintzeko, ieku on bat
idukitzeko, eta posibilitadiaz eman egite-
koz, baina baimenik ez zuelako eman He-
rriko Etxean, orain presupuestuan ez da
sartu Hondarribiko kaia. Eta 88an ikusiko
dugu zer gertatuko den. Nahi dugu juan
bizekonejeruakin hitz egitera, baina oso
itsusi ikusten dugu gauza. Esan zigun ezin
zela segitu presupuestotan sartzen eta
Herriko Etxea beti oztopoak jartzen, 86an
eta 85an ere bazegon presupuestua Hon-
darribirako, baina beti ez zirela egongo ho-
rrela, eta galduta egin degula diru hori.

— Herriak nola ikusten du gaur Kai Be-
rriaren arazoa?

JOSTAKETAN

Bazterretan iluna delarik hedatzen, Etxeko supazterra denean argitzen, Hantxe bere kantuari otitia da lotzen, Soseguz dituela jendeak betetzen...

(otitia = matxin salto)

Haurrei jostatzea gustatzen zaie, berez, presarik gabe, beharrezkoa zaie. Jende helduari ordea ahantzi zaio haurzaroaren axolagabatasuna hori. Batzutan, pertsona helduek pentsatzen dute jostatzea denbora galtzea dela, eta bestetan garrantzitsuenak norberak jokatu irabaztea edo besteak irabazten ikustea dela (futbola, adibidez). Sarritan esaten dugu helduok kirol lehiaketek lasaitzen, "desfogatzen" gaituztela. Hala da dudarik gabe. Helduek ordea haurrek berez duten alderdi hori

zaindu beharra dugu, gutako gehienek lozorroan eta ezkutuan daukagulako.

Jostalari izatea zer da? Arlote izatea da, asmatzalea, odol-beroa, hots, imajinazioa agintean egoten uztea... Ikusi al duzu korrika bost urteko umetxoak zelaietan baina? Txakurtxo zorionsua dirudi. Gogoan ez du plazer hori besterik. Adineko pertsona korritzen ikusi al duzu? Pozik al dago? Zer dauka gogoan bere giharreak, bere adorea eta bere pisua besterik? Umetxoak aldiz une hori zorabioan bizi du: bere hileak haizearen konpasean mugitzen sentitzen ditu, trebeska dabilenean haize horren pallakuak nabaritzen ditu gorputz osoan eta barrenean dastatzen ari den atsegina barre-algara batetaz kanporatzen zaió.

Ortega y Gasset saioidazleak esaten digu beharrezkoa zaigula berezko gauzetaz arduratzea (natura, plazerra, jolasa, atsedena, adibidez); ez dugula hain interesatuak izan behar; gauzei atera diezaikegun probetxoak alde batetara uztea konbentziar; pertsona batzuek neguko lozorroan igarotzen dugula bizitza osoa, —biologoen vita minima deitzen omen diote bizimodu horri—, berehala sumatzen zaigula daukagun elkar hizketa, keinu eta jolasteko maneretan ez dugula ezer espero, ez gugandik, ez besteengandik, ez bizitzarengandik. Aipatutako idazleak dio guztiz inmorala iduritzen zaiola bizitzako momentuak, inxtanteak, ahalik eta sakonkien bizitzen ez saiatzera.

Eta barkazioetako sasoiak heldu baita, bizi gaitzen patxadan.

Guadalupe Artola

EUSKARA ETA POLITIKA

Ea adierazi nahi dudana hitz gutxitan esateko gauza naizen,

Euskara niretzat gure herriaren amasa da, eta diglosiaren anestesia maitzuzuz beste hizkuntza bat sartzen badigute, zikiratu gaituzte, eta eunuko huts bilakatu da euskalduna eta Euskalerria.

Eta akabo Euskadi.

Adios.

Euskararen aurkako erasoak zaharrak dira; bizpauru liburuetan ahalegindu naiz hauek eta berriagoak salatzen. Gure hizkuntzaren etsaiari, gerra! Ez dira, halere, euskararen arerio guztiak kanpotik etortzen; askotan euskararen areioa euskalduna da: bere burua gorrotatzen duelako, alferkeriaz euskararen aldeko protesta alferrean bizi dena, eta baita, suertatu daiteke, euskararen alde lanean fin ari diren batzuek ere.

Hauek, azken finetan, euskararentzat kaltegarri gerta baidaiteske.

Eta mekanismo erraza da: Euskarak, euskara bezala, gure herriko abertzaleak biltzen ditu, gure herriko kultur bidea indartzen du. Politika da, askotan, honek ekar dezaken politikaria medio dela, gure zatiketa bide. Ez dut esaten, noski, politikari egin behar ez dugunik; egin behar dugu, bakoitzak bere den bidetik, eta bakoitzak horretarako dituen egunkari, aldi-kari eta liburuen bitartez, eta hitzaldietan, bileretan, horretarako diren bide guztietan, eta hemen euskara erabiltzerik bada, hainbat hobe.

Baina ezin egin duguna zera da: gure herriak euskara aurrera atarako bada herriarrak euskara irakurriaren bideak ibiltzeko aldi-kari bat sortu, Hondarribia, eta egoera honetan euskal herraminta edo haur politikaria bat egiteko tentazioan erori.

Neuri ajola gutxi zein taldek egiten duen hori, denak gaitsetziko baitituz.

Gure artean politikoak diren arazoak eta borrokak haizatzeko bada beste biderik. Eta gure herrian euskara irakurrazteko bide bat, eta ona, ondo egina, sortu eta gero, bide hau hondatzeko bidetik ihes egin behar dugula uste dut.

Kasu berezi honetan, euskara da gure politika eta partidua.

Martin Ugalde

HONDARRIBIKO EGURALDIAREN DATOAK Ekaina 1987

Bataz besteko tenperatura	18,3
Maximen bataz bestekoa	21,7
Minimen bataz bestekoa	13,4
Temperatura gorena	31,0
Temperatura behearena	9,4
Euri-litroak	165,1
Egun euritsuak	12
Ordu eguzkitsuak	191,0

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

ARKAIZPEA

Aurreko hilean ESKIFAIA Italian izan zen, Fano izeneko hirian ospatzen den festibalean parte hartzen.

Festibale hau oso interesgarria da kan-
tarientzat, urteoro Europako abesbatza
onenak biltzen bait dira. Aurtun zortzi
abesbatzek hartu zuten parte, hauetako
bi profesionalak zirelarik.

Festibalak iraun zuen lau egunetan ze-
har, ESKIFAIAK saio ederrak entzun ahal
izan zituen, eta baita eskaini ere.

Bestaldekik, Abuztuan kontzertu bere-
zi bat emango dute Cantabriako "Bien
Aparecida" santuarioan. Urteoro festibale
bat antolatzen da bertan, eta aurtun ES-
KIFAIA gonbidatu dute, hilaren 2an kon-
zertu bat emango dutelarik.

Kontzertu honetan bi gauza bitxi aur-
keztuko dira:

- Javier Bustoren "Misa pro pace"
- Johannes Brahms-en "Liebeslieder
Walzer, Op. 52".

Kontzertu hau Radio Nacionalak bere
bigarren katetik emango du, badago ber-
az bertara joan gabe ere kontzertua
entzuterik.

Maribi

ARKAIZPEA

Ekaineko alean Juan San Martinek era-
kusten zigun herrian oso sarturik dagoen
Iterlimen izena, hondartza ondoko etxe
haundiak egin zituen enpresaren izena de-
la, eta ez dela egokia izen horrekin izen-
datzera paraje hura.

Herriko kulturari begiratu behar diogu,
guztiok, eta arrazoi haundia duela gizon
horrek aitortzen dut. Gure herriak, eta ber-
din Euskal Herriko beste toki batzuk ere,
piskana piskana euskal izenak galduz
doaz, erdal izenak esaten hasten garelako.

Hemen Hondarribian bertan, Iterlimen,
La Copa, eta halako izenekin ezagutzen di-
tugu leku batzuk. Baina bakoitzak badu
bere euskal izena, betidanik eduki duena.

Juan San Martinek erakusten digu noi-
zean behin zein diren antzinako eta bene-
tako izenak.

La Copa, erderazko izen itsusi hori
esan beharrean, MAHASTI esan behar du-
gu, izen hori bait du aldameneko baserriak
eta bere inguruak.

Iterlimen beste erderazko izen itsusi
horren ordez, bere benetako izena AR-
KAIZPEA esaten hasiko gara. Leku horre-
tan zegoen hondartzari ARKAIZPEA dei-
tzen zioten gure aurrekoak.

Kopa Kaizarrek dioenez, leku horren-
tzat baita ere izen polita eta egokia izan-
go litzateke "LAMIATERA", izen hori zue-
lako han zegoen ugartetxo batek, gero Kai
Berriako bidea egin zenean galdu zenak.
Arrantzaleek "MINATERA" deitzen omen
zioten ugartetxo horri.

Dena dela, badira hor euskal izen ja-
tor eta betikoak, orain La Copa, Iterlimen,
eta halako izen atzeritarrek esaten
hasteko.

Hau ere kultura da, eta zaindu egin be-
har dugu guztiok.

Miren

ARTE ERAKUSKETAK

Uda garaian gure herrian erakustoki
ugari irekitzen da pinturako kuakroak ba-
tez ere saltzeko asmoarekin. Galeria ize-
na daramate gehienek, eta gehienetan
bakterturik dago euskara, han azaltzen di-
ren agerpen eta folietoen. Itxura denez,
erdaldunentzat bakarrik dira erakustoki
horiek, edo artea erdaldun bihurtzen da
Hondarribian.

Galeria Mensu, Llamas, Movellan,
Arte-Eder, Arkupe, Medioevo, Ttopara,
Sorondo, Higer, Arracubiarta, etabarrei,
dei egiten diegu, non dauden eta noren-
tzat diren kontura daitezten.

Bestalde, oso interesgarriak direla
esan behar erakustoki horiek, zeren, na-
hiz eta kuadrorik erosteko dirurik ez edu-
ki, hala ere gure begien kontsolagarri ger-
tatzten direlako hainbeste pintura estilo eta
edertasun herrian bertan ikusteko aukera
ematen digute eta.

Marisol

"BORDARI" ETA "SATARKA" IV.
LITERATUR LEHIAKETAK

"Euskararen zabalkuntzarako eta idaz-
le berriak sortzeko" antolatzen du Udak
Euskara Azpibatzordeak euskarazko idaz-
larren lehiaketa hau.

Ipuinak eta olerkiak dira lehiatzen di-
renak. Ipuinak gutxienez 5 folio eta gehie-
nez 15ekoak izango dira. Olerkiek, ber-
rituak, gutxienez 50 lerro eta gehienez 150 izan-
go dituzte.

Aurkezpenerako epea 1987ko iraile-
ren 15eko eguerdiko 12etan amaituko da,
Hondarribiko Udaletxeko bulegotan.

18 urtetik gorakoak, Hondarribia, Irun,
Lezo, Pasaia, Oñati, Oñeta, Endaia,
Biniatua, Bera, eta Lesakakoak izan daitez-
ke. Sarj: 100.000 pezetakoa.

18 urte artekoak, Hondarribian jaio
edo bizi direnak izango dira, eta hauen-
tzako saria 40.000 pezetakoa.

Badugu, beraz, aukera ezin hobea
idazle gazteok, geure ipuin edo olerkiak
txukun txukun idatzi eta lehiaketa hone-
tan parte hartzeko.

Joseba



BORDARI, BAXURKO, BASARRI, eta SATARKA, Euskal Literaturako lau gizon ospetsu,
elkarrekin pasiatzen.

HONDARRIBIA-ren KOLABORATZAILEAK

Denda eta komertzio hauei esker zabalt-
zen da gure aldizkaria. MILA ESKER.

Mendelun: Arratibel
Estankoa.
Amuten: Anza
Ana Rosa
Luisen Harategia
Damarrin: Leonor

Alde Zaharrean: Harma Plazako Estankoa
Arritxunean
Udaletxean

Soroetan: Ana Mari Agirre

Portuan: Lankide Aurrezkoa
Aurrezki Kutxa Municipalak
Erosle
Oleasro
Mei
Goikoetxea
Peña
Lapitz Estankoa
Arozena Harategian
Itsas Etxean

Sokoan: Sokoa Liburutegian.

AITONA

Hango inguruetan dabil aitona, bere itxura tristea, nekatusa, darama aurpegiari; urteen zehar pasatako iragana.

Aurpegiak dituen simurrak borondatea adierazten dute, aurpegi tristea, nekatusa eta asperia.

Esku handi, hatz luze eta mehe, gorputz argal, oin handi, lepo mehe...

Bere oinek ezin dute bere pisua jasan, bastoia dauka lagun leialtatzat hemendik hara eta handik honara.

Bere gaztaroen pauso handiak eman bazituen ere, oraingoak txikiak dira, txikiak, oso txikiak...

Oroimena buruan, oroimena, aitzineko oroimena...

Elena Lazkanotegi
(Ikastola, 7.A)

KURTISO BUKAERAKO IRTEERAK

Aurreko hilabetean, kurtso bukatzera ziholakirik, zenbait irteera egingo zirela aipatu genuen. Irteera hauek, gelatik eta betiko giroetatik kanpo elkar erlaziozatzeko pentsaturik daude. Lanak taldea baten dira ikasleek ardura hartuz egune-roginkizunetan.

Eusko Jaurlaritzak eskeintzen duen alberge edo udalekuan zerrenda batetan badira bi motatakoak: zerbitzu guztia erekin osatuta, edota etxearen erabilpena bakarrik eskeintzen dituztenak, beraz bertako antolamentua zure baitan gelditzen direnak.

Alberge hauek Euskal Herritik zehar banaturik daude, eta kurtso osoan erabilizko moduan izaten dira, ez ordea udan.

Aurten ikastolako 6. mailakoak Alkizara hurbildu gara, bertan hiru egun pasatzera. Oso inguru menditsu eta politan kokaturik dago, Errioren magalean.

Eguraldiak utzi digun neurrian mendira irten gara, bainan bi edo hiru ordu tarrezkatuturik zaparrada galantak botzen dituzenez, ez gara oso urrutiri iritsi.

Nahiz eta herria oso txikia izan, ikaragarriko frontoi estalia du, eta han aritu dira gure pilotariak eskuetan babak atera arte.

Jokuak (partxis, xake, damak,...) gurutzegramak, eta beste zenbait entretengarri ere eraman ditugunez, oso gustora egon dira.

Baina dudarik ez, gauda da etxetik kanpo pasatzen diren egun hauetako momen-



turik garrantzitsuenak. Txisteak, jokuak, antzerkiak eta abar prestatzen dituzte ahalik eta luzeena izan dadin gaua. Dena dela, eta giroa motelten hasten denean, banan banan ohe aldera abiatzen dira, batez ere, urrango egunean irteeraren bat prestatutur dagoela oroitzen badira.

Kurtsoaren hasieran, batek baino gehiago galdetuko du: "Ande, nora joango gara kurtso bukaera?" nahiz eta oraindik irailan egon!



IKASTAROAK

Urtero Adarra eta beste zenbait taldek ikastaro batzuk antolatzen dituzte Abuztuko azkeneko astean.

Aurten, Hondarrribian izango dira, eta beti bezala aukera dextente dago egunean zehar banaturik dauden ekitaldietan. Ikastaro hauek, Hondarrribiko Institutoan eta Aginagalde Ikastetxean egingo dira; eta kanpotik etorriko den jendearentzat Elkanerekin kontaktatzen dute lotarako.

Datorren ikasturtea prestatzeko aukera ederra dugu bailarako irakasleak.

Loli

Okupazio lantegiak

Amuteko Eskolan jarriko dira gazteen-tzak, Udalak antolatutako lantegi hau. Ideia hau burutzeko, nahiko denbora behar izan da. Izan ere, ikusten zen badirela gure herrian lanik gabeko neska mutilak, eta ikasketak utzi edo bukatuta gero. Horrela, beste herri batzuetako esperientzia ezaguta gero, Hondarrribian ere halako lantegi bat montatuko da.

Hasieran, iheltseria erakutsiko da, eta Irun eta Hondarrribiko gazteentzat izango da. Badira hamasei gazte izena eman dutenak eta eurakin hasiko da martxan.

Bost milioien kostoa kalkulatzeko, eta Foru Aldundia izango da dirua emango duena, hala espero da behintzat.

Arantza

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

ARRATIBEL OKINDEGIA

Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975

HONDARRIBIA

Legatza

Udaberriari bukaera eman genion eta udako lanetan murgildu ginen arrantzale guztiak.

Ekainean eguraldi txarrak izan ziren hasiera aldean, eta egun asko zuten barkuek itsasora joan ezin. Itsasontzi haundiak atunetarako prestatu ziren, eta legatzketariak lehengo lanetan jarraitzen zuten artean, haundiak beita egitera joan ziren.

Aurten antxuaren kostera beste urte batzuetan baino laburragoa izan da, ba beste urteetan ekainaren amaiera alderarte irauten zuten, baina aurten amaitutzat eman genuen.

Legatzketariarentzat, berriz, gauza antzera joan da.

Hegaluzetan lehendabizi atera zen barkua, ekainaren 6an joan zen itsasora, eta hilaren 25ean itzuli, 6.000 kilorekin kargatua. Prezioa oso ona izan zen, 465 pezetzetan saldu bait zuen. Egia da arrantza hau egitera 5 edo 6 eguneko bidea egin behar izan zuela, gau eta egun gelditu gabe. Kazan egin zuen arrantza, noski.

San Pedro eta Santiago egunak

Bi egun hauek oso haundiak dira guztzako, San Pedro arrantzaleen zaindaria delako, eta Santiago ere arrantzalea zelako.

Gainera, Hondarribian, San Pedro egunez Kofradiako batzorde zuzendari berria bereizten da, eta Santiago egunez kargoen jabe egiten dira. Bietan eliza nagusiara joan ohi dira barku bakoitzeko patroil eta mariñel bana, eta han ospatzen dira urtez urte, eta mendez mendez, ospakizun bereziak. Elizako sakristian sartzen dira guztiak, eta hauteskundeak egiten da. Aurtengoan, Esteban Olaizola izan da bereizita Abata Nagusi.

Santiago egunez, berriz, batzorde berriak kargoen jabe egiteko, baita ere elizara joaten dira, musikabanda, alkate, eta guzti. Gainera, neskatzak Kofradiako KUTXA darama buru ginean, eta herriari asko gustatzen zaio arrantzaleen egun eder hau.

Hegamotza

Hegamotzetan ere hasiak dira herriko ontzi batzuk, eta hatzeman dute hegamotoza.

Hegaluze eta hegamotozetan dabilztan ontziak 27 izan ziren uztaileen hasieran, baina ezkerotzik beste txiki batzuk ere hasi dira. Hogeita zazpi haletatik, normaiki 10 hegaluzetan dabilzta, eta beste 17 hegamotozetan.

Urtean zehar legatzetan dabilztan beste 30 ontzi, kazara joaten dira hegaluzetan. Eta gero beste 29, txikiagoak direlako, hauek legatzetan jarraitzen dute.

Santiago egunez guztiak etxeratu direnean, inpresio beltza da prezioari begira. Prezioak behera erori dira, eta saldu ezinik aurkitzen gara arrais.

Estatistikak

1986-1987 urtea

Saila	Kiloak	Salneurria
Antxua	962.571	365
Algak	600.612	50
Hegamotoza	1.050.981	278
Arrosela	20.134	1.270
Hegaluzea	1.593.316	286
Txitxarroa	100.987	154
Mediana	176.796	881
Legatza	42.600	1.291
Monja	38.167	232
Perlita	23.638	145
Peskadilla	300.319	559
Txardina	2.322	77
Berdela	2.358.659	34



Urtea	HEGALUZZA/HEGAMOTZA		ANTXUA		LEGATZA/MEDIANA/PESKADILLA	
	Kiloak	Salneurria	Kiloak	Salneurria	Kiloak	Salneurria
1977-78	2.078.727	133,67	2.640.155	37,44	314.566	331,66
1978-79	2.534.643	103,95	1.643.667	57,84	464.325	430,28
1979-80	1.931.876	143,94	1.603.670	107,29	588.531	477,47
1980-81	1.988.523	176,46	856.995	135,06	392.191	515,35
1981-82	1.766.410	272,55	372.247	246,09	300.046	607,86
1982-83	1.828.563	258,41	1.125.122	142,00	382.303	632,72
1983-84	2.838.509	210,75	2.794.285	155,00	600.704	564,69
1983-84	2.838.509	210,75	2.794.285	155,00	600.704	564,69
1984-85	2.135.258	252,89	569.806	348,00	377.816	650,69
1985-86	2.819.126	317,37	224.270	334,00	192.526	769,53
1986-87	2.682.720	281,87	962.571	365,00	523.715	727,19

ZENBAIT TITULU ETA OFIZIO HONDARRIBIKO ETXE IZENETAN

Hondarrribian, kale kaskotik kanpora zeuden edo dauden etxerik gehienak, baserriak barne direla, pertsona izena darabate, batzutan baitaio izenekoa, bestetan deituratiko eta inoiz ezizen edo izengoitizko ere bai. Baina, horiez gainera badiara titulu edo ofiziozkoak ere. Benetan interesgarriak nor zein zen edo zertan ari zen jakiteko. Gaurko artikulutxo honekin emango ditugu zenbait adibide.

Gaur hain ezaguna den Biskundi auzoak, bere izena, lehen toki hartan zen etxe batetik hartua du. Etxe hori, 1857. urtean **Viscundinea** bezala agertzen da probintziako Nomenklaturaren eta, zalan-tzanik gabe, bizkondearen etxea zela erakusten du.

Oso ezaguna zaigu Batxillerenea ere, 1787ko zentsoan **Bachillerenea** agertzen zaiguna. Gaur egun, zenbait ikasia den guziak du batxiller titulua, baina hamazortzigarren mendean ez zen nornahi.

Garai haietan, euskaldunek ez zeuden soldaduzkara joateko beharrik, foruen eskubidez, baldin bere erresumako gerrarako izan ezik, baina mertzenari gisa bo-luntario joan ezinik ez zuten eta holakoak ere maila berezia osatzen zuten gizartearen eta horregatik da etxeetan bat **Soldadue-nea**, 1857ko zerranda hartan **Soldadue-nea** bezala agertzen dena.

Konsul zenaren etxeak ere, bere izena hartu zuen, Konsulenea. 1787ko zens-o hartan, hutsgeitez edo, **Consolenea** agertzen da (behar bada ahozkatzean ha-la erabiliko zuten), baina 1857ko Nomenk-laturaren zerrandan argi dator, **Consulenea**.

Harginik ez zen faltako Hondarrribian, Jaizkibel mendiko hondar-harria hain es-timagarria zenez etxeak edo elizak eraiki-tzeko, baina norbait bazen garairen batean ofizio hortan bestek baina doain gehiago zuenik zeren bai baita etxe bat **Argiñenea** deritzana, 1787ko zensu hartatik behinik-pehin, han datorrenez **Argiñenea**.

Arotz ofiziotikakoa dugu ordea Aro-tzena, 1787ko zerranda hartan **Arozena** zena, 1857koan ordea, **Arotsena**. Hortik ikus, behar bada, ordurako nahastua zela z eta s-ren arteko berezketa gure herrian.

Gaur Balestanea izenez ezagutzen de-na, **Balestarienea** zen 1787an, eta **Balles-tanea** 1857an. Ballesta, armatik ala zal-gurdirenetik ote zen? Dena dela, hor da-go ofizio baten izena.

Ttun-ttun joleak emango zion izena Danboliñeneari. Hau ere, gutienez, hama-zortzigarren mendetik datorrigu, 1787an **Tamboliñenea** eta 1857an **Damboliñenea** azaltzen denez.

1787an **Herreroenea** eta 1857an **Erre-rona** agertzen zaiguna, ofiziozkoa ezik di-raturatiko izan daiteke, zeren 1638rako he-men agertzen baita da deitura hori, Miguel de Aguinaga Herrero-gandik hasita edo. Garai haietan erraz egiten bai zuten biga-rren deitura lehenengoagatik trukatzela edo bietarik edozeinek baliatzea. Larra-mendi bera, adibidez, amaren deituraz ibili zen aitarengandik zetorkien Garagorri baztertzuz.

Telleria, 1787ko zerrandan aipatzen da, hutsik zegoela aditzera emanaz, bai-na 1857ko etxe zerrandan berriaz dator. Geroztik galdua da nonbait. Egia esan, Te-lleria, ofizioa bera baino arago zen lan-tegia, baina teilagina, edo teilaginak ere han biziko ziren.

Horietatik oharituko gara izen bakoiz-tzak zernolako adibideak ematen dituen eta ulert errazago egingo zaigu ondare be-zala historiarentzat zein hizkuntzarentzat eskaintzen dizkiguten datuak jakingarriak direla.

Juan San Martin

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

JAIOTZAK

EKAINAK

- 14: ITXASO Ugartemendia Moreno Ramon eta Josefa Antonianen alaba Guadalupeko Ama, 3 - 4.º eskub.
- 11: TAMARA Amorena Igarza Jose Ramon eta Sararen alaba Higer bidea 3 - 3.º A.
- 13: IRATI Torija Menor Ricardo eta Lucianen alaba Biteri kalea 2 - 4.º A.
- 18: XABIER JERONIMO Izaguirre Alza Jose Maria eta Nievesen semea. Loraitz bat - 2.
- 21: MIREN Arrigain Alonso Simon eta Isabelen alaba. Guadalupeko Ama 12 - 4.º.
- 24: JON Ugartemendia Ugalde Juan M. eta M.ª Josefaren semea. Pasai kalea - Errezubi bi - B.
- 27: MARCOS-ALON Garcia Inostrosa Marcos eta M.ª Cristinaren semea. Ubilla kalea 10 - 2.º A.

EZKONTZAK

EKAINAK

- 13: Joseba Iñaki OYARZABAL ISASA 30 urtekoa - Irundarra. Margarita ALCAN GOIKOETXEA 27 urtekoa - Hondarribiarra.
- 20: Jose Ignacio OREJA CEA 26 urtekoa - Gasteizen jaioa eta Iruñan bizi dena. Beatriz TUREGANO ARROYO 22 urtekoa - Iruñen jaioa eta Hondarribian bizi dena.
- 20: Fernando ZAPIAIN LOYARTE 29 urtekoa - Beratarra. M.ª Angeles AZPIAZU OLASCOAGA 24 urtekoa - Hondarribiarra.
- 29: Benito AMADOR GARCIA 34 urtekoa - Salamancan jaioa eta Iruñen bizi dena. M.ª Izaskun KEREJETA EIZAGIRRE 22 urtekoa - Hondarribiarra.
- 37: Carlos ITURRALDE ARA 34 urtekoa - Iruñen jaioa eta Hondarribian bizi dena. Miren A. IÑARGA ETXEBERRIA 20 urtekoa - Irundarra.

UZTAILAK

- 11: Jose A. ZUBIZARRETA ETXEBESTE 29 urtekoa - Zizurkilen jaioa eta Azpeitian bizi dena. M.ª Aranzazu MUGURUZA AMUNARRIZ 20 urtekoa - Hondarribiarra.

HERIOTZAK

EKAINAK

- 21: M.ª Dolores AGIRRE ALDAZ 88 urtekoa - Kale Nagusia 30 - 2.º

UDAL LIBUTEGIKO ESTADISTIKA (EKAINA)

Liburu erabiliak	1.059
Lan Orokorrak	67
Umentzako	593
Zientziak	280
Literatura	119
Irakurleak	860
Gizonezkoak	440
Emakumeak	420
Umeak	648
Helduak	212
Euskal liburu erabiliak	15,95%
Portzentaia jetsi da	3,02%
Kote	

GORKA OBESO EUSKADIKO ATLETISMOAREN PROMESA

GORKA OBESO ARDAIZ, 1969ko otsailaren 24an jaio zen. Junior mailako atleta dugu, beraz, hondarribiar mutil gazte hau, eta beste urtebete geratzen zaio maila horretan.

Atletismoko praktikarako oso egokitu dago Gorka, fakultate onetan oinarritua, zaletasun bizi bizi eta, agian garrantzitsuenena dena, atletismoko mundu zail horretan destakatzeko gogo izugarriarekin.

Gorka, Txingudi Ikastolan hasi zen kirol hau egiten, Joseba Sarriegiren gidaritzapean, eta orain ere Joseba du bere entrenatzailea.

Infantil mailan korritzen zuelarik, marka onak egiten hasi zen, baina **Jubeniletan** izan zuen destakatzeko unerik onena. Jubenil bezala, gorakada latza egiten du, eta orain Estatuko espezialistarik onenetakoa da 2.000 m. obstakuloetan.



Esanak baino emaitzak argiagoak direlako, hona hemen gure herriko atleta honen emaitza ederrak:

- Junior Kross Gipuzkoako Txapelduna.
- Junior 1.500 m. pista Gipuzkoako Txapelduna. Irún.
- Junior 2.000 m. obstakulo Gipuzkoako Txapelduna. Irún.
- Junior 3.000 m. Euskadiko Txapelduna. Barakaldo.
- Junior 2.000 m. obstakulo Euskadiko Txapelduna. Barakaldo.
- 2.000 m. obstakulo Espafiako Txapelduna, 4.ren. Getxo.

Azkenengo laisterketa honetan, bere marka 5' 49" 62, hirugarrenetik 7 zentsimetara geratu zen, bestela hirugarren postua eta podium eta bronzeko domina jasoko zituen, baina hala ere bere marka hori Gipuzkoako rekord berria da, orain arte Martin Mendizabalek zeukana 1974 ezkerre 5' 58" 2-ekin.

Aurrera, Gorka.

Futbola

Hondarribia Futbol Elkarteko Jubenil mailako ekipoa Gipuzkoako Txapeldun geratu zen, Atotxako futbol-zelaian **Gazteleku** ekipoiari 1-0 irabaziz. Hauek jokatu zuten: Cortes, Vallejo, Goikoetxea, Pikabea, Diaz, Emeri, San Miguel, Corral, Testa, Olaiz, eta Bidaurreta.

Gure ekipoi jubenilak kantera izugarria landuko du, egunen batean goimailako ekipoiari igarotzeko, eta horrela herriko mutilekin osatu dadin rejionaleko ekipoi.



LARRA, Futbito Txapelketan irabazte geratu zen ekipoi famatua.

Trainerillak

Kirol honetan ibili diren arraunlari gazteak ere merito handiz ibili ziren udaberrian eginiko torneoan. Kontrarioak oso gogorrek direla kontuan hartzen badugu, lortu zuten sailkapenak txaloa merezi du.

• • •

Arraun Mugikorra

Juan Mari Altuna, Matxin Elosegi, Ramon Arrizabalaga, Iñaki Arrizabalaga, Lazaro Olaziregi, Aitor Agirre, Iosu Ponce, Andoni Olaskoaga, eta Ramon Emazabel,

Soroeta-gaineko futbol-zelaian jokatu zen Futbito txapelketan, **LARRA** ekipoi geratu zen txapeldun, Guttik arbitratuta ko finalean.

Galtzailea, Endaiko Garibai izan zen.

Jose Mari Arbelaitez jaso zuen trofeo, bera bait da LARRA ekipoiaren ardatza. Ekipoi osatzen dutenak, hauek dira: Palenzuela, Iñaki, Serrano, Jauregi, Oroz, Ismael, Arsuaga, Isaak, Nikasio, Raku, eta Zaldua.

dira "timoneldun 8koa" osatzen duten arraunlari indartsu eta trebeak.

"Timonel gabeko 2koa" osatzen dutenak, berriz, Manuel Isasa eta Tadeo Poplawsky gazteak dira.

• • •

AMA GUADALUPEKOA

Hondarribiko trainerua berriz ere jatake hasi zaigu, betiko markak berraztertzeko asmoz. Hasierako estropadak oso egin dituzte, aurtengo urtean banderaren bat irabaziko duen itzaropena du jende askok



1951 trainerilletako Txapeldunak. Hondarribiko arraunlari hauek izan ziren: Tomas Iza, Beñardo Goikoetxea, Nikolas Olasagasti, Mikel Arruabarrena, Juan Gonzalez, Antonio Olaso, eta Gregorio Olasagasti



DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu.

Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena:
AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALeko KUTXA TXARTELA.

Estatuko 2.500 kutzazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua za-baldu besterik ez bait duzu egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hondarribiko guzti hauetan dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA

Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELAekin. ■

RESTAURANTE ARARKA
Baserria Ararkoa

RESTAURANTE AINHOA
Beder Etxepare, 6

HOTEL ALVAREZ QUINTERO
Beder Etxepare-Esteban Miranar

RESTAURANTE AQUARIUM
C/ Zuloaga, 30

SUPERMERCADO SOKOA
Centro Comercial Sokoa

MUEBLES ALONDA
Centro Comercial Sokoa

ELECTROMUEBLES GEURIA
Paseo de la Victoria, 18

SESA
C/ra. Leizaola, 4 buzo

ELECTRICIDAD KAIA
Arrieta Ugarita

CALZADOS IRUSI
Arrieta Ugarita, 7 buzo

EDERKI
Arrieta Ugarita, 8

RESTAURANTE ARRAUNLARI
P. Beder (Etxe Arrieta)

MUEBLES MARTINEZ ORETXE
P. Plaza, 12

KUTXA
P. Plaza, 12

OTRITZ
San Pedro, 41 buzo

ROUTIQUE ROS
Plaza, 21

RESTAURANTE JAIZURIA
Paseo de la Victoria de Urkullu

RESTAURANTE BEKO ERROTA
B. Jaizurria

HOTEL JAUREGUI
San Pedro

TXALUPA
San Pedro, 41 buzo

OTRITZ
San Pedro, 41 buzo

ITXAS LOPEZ
San Pedro, 65

OPTICA JAVIER
San Pedro, 12

RESTAURANTE ARRANTZALE TXUKO
San Pedro, 22

RESTAURANTE ZERIA
San Pedro, 22

RESTAURANTE ITXASPE
San Pedro, 52

MARKISOL
San Pedro, 67

ELECTROMUEBLES GEURIA
San Pedro, 8

ASADOR MAÑOLI
Santiago, 41 buzo

RESTAURANTE OSTARTE
Santiago, 22

JUAN ALCAIN JAUREGUI S.A.
Zuloaga

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD
Zuloaga, 205

GAZTELU SPORT
Zuloaga, 18

ASADOR KUPELA
Zuloaga, 4

GAXEN
Zuloaga-Casa Martincho-Etxe

JOYERIA GARIN
Zuloaga, 16

REGALOS NORAY
Zuloaga, 16

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

UDALA

Oraingo honetan ezin dugu gauze gehiegirik kontatu, lerro hauek idazterakoan oraindik Udal Batza antolatu gabe dagoelako, eta Ekainaren 10eko hauteskundeak egin zirenez gero, Udala geldi geldi dagoelako.

Hala ere, hasi gaitezke Udai berria San Martzial egunez bildu dela lehenengo aldiz, alkatea haukeratzeko.

Han izan ziren 16 zinegotzi berri, 17garren bat falta zelako, Euskadiko Ezkerreko Bittor Aldabe.

Guztiak Udaletxeko areto nagusian bildurik, alkatearen bereizketa egin zen. Zinegotzirik zaharrena (Jose Manuel Larrarte) eta gazteena (Fermin Urtizberea) izan ziren mahai buru, eta botazioa egin zen.



Alfonso Oronozek sei boto izan zituen, eta Esteban Olaizolak beste sei. Hala ere Alfonso Oronoz izan zen izendatua alkate, bere alderdi politikoak (EAK) Estebanek (HBK) baino 4 boto gehiago izan zituelako Ekainaren 10eko hauteskundetan.

Españako Konstituzioaren onartzea, egitea agintzen zuen legeak, hau da, alkate eta zinegotzi guztiek Konstituzioaren menpe biziko diren juramendu edo zina egin behar zuten. Baina Hondarribiko kasuan, ez zen planteatu ere egin halako gauzarik, eta ez zen halako zirimoniarik egin.

Ikurriña Udaletxeko balkoian

Esan dugun ekitaldia egin aurretik, HBK zinegotziek Ikurriña jarri zuten Udaletxeko balkoian, eta oraindik ere, aldirik hiru hau eginen ari garen egunetan, han-txe dago balkoiaren erdi erdian.

Zinegotzien zain

Lehenengo gorpazioak ez zuen denbora nahikorik izan, egin behar zituzten gauza guztiak egiteko. Zintzilik geratu zen hainbat gauza, bukatu gabe; beste batzuk, hasi gabe; beste batzuk, ia bukatuak...

UDALA

HIRIGINTZAKO EGITASMO OROKORRA. Planeamenduko Arau Subsidiarioak, erdaraz, Plan General de Ordenación esaten dena.

Orain dela sei edo zazpiren bat urte gure Udalak Egitasmo berria egiteak denbora luzeegia eramango zuela, eta "Normas Subsidiarias" egitea erabaki zuen, hauek denbora laburragoa esijitzen zutelako. Baina zer gertatu da? Sei urte igaro ondoren, oraindik aprobata gabe daudela.

Hau da, ba, zinegotzi berriek torea bakoitza duten zezentxo bat. Korrida lehenbait lehen zelebratzea izango litzateke onena, orduan erabakiko bait da herria nola antolatuko den urte batzutarako.

AUZOTAKO KIROLDEGIAK. Hor dauka Amuten eta beste auzotan kirola egiteko zelai batzuen zain aspaldiak. Agindua ere agindu zaie bali baino gehiagotatik.

Behin batean, Amuteko haur pilla bat Udaletxeko Areto Nagusian baloi eta guzti sartu omen ziren, Udala Pleno bat egiten ari zela. Etxera lasai joateko esan omen zitzaizkien, laister egingo zitzaizela eta futbolgo zelai bat. Oraindik zai daudelako, eta beste auzo batzuetan ere premia berdinak direlako, zinegotzientzako hor dago beste gauza bat konpondu beharrean.

PISZINA. Hau ere herriko jende askok eskatua, eta Udalak bere gain hartutako asuntoa. Planokak ere egin ziren. Non egin ere erabaki zen. Guk uste dugu gorpazio honen denboran egingo dela, eta Hondarribiak izango duela Piszina eder bat, auzoko herriek Endaia eta Iruneak daukaten bezala.

KULTURA. Gai honetan ere hutsuneak geratu dira bete gabe: Kultur-Etxea, Gaztetxea, Liburutegia, Zinemakia, etabai...

Gaztedia abandonaturik geratzen da bere gisa. Drogaren problema izugarria da Hondarribian. SIDAk ere eraman ditu beste mundura herritar batzuk. Hori hor da go, eta badirudi inor ez dela sartzen behar bezala problema horretan.

Ayuntamiento berriak badu nahiko lan hortxe, eta gero eta beharrak haundituzko direnez, egingo duten lana ere haundituzko izango den esperantza dago herrian.

Azkenik, ez dugu esango den dena egin gabe geratu denik. Orain arteko gorpazioak ere eginga du lan asko. Herriak gehiago nahi du, eta gehiago eskatzen du. Zinegotzi batzuen lan asko egin dute. Eta eskerrak eta zoriak ematen dizkiegu Beste batzuk... nork berak jakingo du nor beraren berri.

ONGI ETORRIA gorpazio berriari!

Gorka

PORTU AUZOKO PLAN BEREZIA. Hau da beste arazo bat, zintzilik geratu zaiona. Aspaldiak bukatua dagoena, baina oraindik onartu ez dena, kajoiaren batean gordeta edo galdurik dagoena. Egia da gaur ez dagoela Portuan etxe berriak egiteko leku haundirik, baina Plan berezi horretan adierazten da nola antolatu behar den Portua.

Hemen daukate, beraz, beste problema bat zintzilik.

ASTILLERO ZAHARRA. Badakigu Kai Zaharraren ondoan astillero bat zegoela. Eredu hiri astillero bihurtzeko baimena eman zen orain dela ehun urte inguru. Eta egin zen astilleroa. Azkenengo barkua hor eginga MARI PAZ izan zen.

Astilleroa itxi zen ezkerotik, eremu hiri hiri bihurtzekotan da Udaletxea, eta erabaki hiri hartu zuela ere igaro dira hiru lau urte. Baina asuntoa lo dago, edo antzera. Zinegotzi berriek ikusi beharko dute, ea arazo hau ere pizkortzen den, edo berriro ere hurrengo gorpazioarentzat geratuko den.

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo, beza, edo bertara joan eta Euskara Azpizbatordeaz galdetu. Baita, Korreosetan Udakal duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak.